

GUADALUPE ECHEVARRIA

1. Denok dakigu arte irakaskuntzaren unerik onenak gertatzen direla belaunaldi jakin bateko artistek beren garaiko kritikari eta artelanak egiteko moldeei aurre egiten dietenean; eskoletan irakasten duten artistek beren garaia bete-betean bizitzen dutenean. Artista-irakasleak hobeak dira aitortzen dutenean tailerretan ikasleekin egiten dutena ez dela lanbidea belaunaldiz belaunaldi transmititze hutsa, baizik eta aitortzea, gainera, beren lanak ere irakaskuntzaren *locus* berean. David aipatu nahi nuke, XVIII. mendearen amaierakoa, urrun samar egiten bazaigu ere, ikasleekiko joan-etorriko elkarrizketan. Horixe gertatu zen historiaren une onenetan Bauhaus eta Vkhutemas-eko artistei, Black Mountain College-koei, 60-70eko hamarkadetako Londreseko arte eskoletakoei. Beti aipatzen ditugu pertsona berak, baina egia esateko, arte irakaskuntzaren historian ez daude aipa daitezkeen hainbeste adibide.

Arte Eskolek ez diote beti aurre egiten arte ekoizpenaren errealitateari, eta leku horietan ikasleak ez dira beti aitortuak izaten egoera publiko ireki batean haiekin solas egitea merezi duen ikasleak-artelan ekoizleak bezala.

Egia esan, ezer aldatu baldin bada gaur egun leku horietan, izan da artearen publikoari, artistei, kritikariei eta, batez ere, komisarioei, era berri batean interesatzen zaiela tailer eta mintegietan gertatzen dena, Arte Eskola baten tailer eta mintegietan batzuetan arretaz -eta askatasun sentipen indartsu batez- ezkututzen dena. Suposatzen dut interes horren oinarrian azken hamarkada honetan garapen fasean dagoen artelanaren inguruan pizten ari den grina dagoela. Eta energia dezente inbertitzen da hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan artean nagusitu ziren zenbait printzipio berrikusten, lan haietan agintzen zuten printzipioak ulertzen eta figura ahaztuak aintzatesten: egiten ari den artelanaz, bere denbora berezian, ekoizten den unean, gertatzen ari denaz ari gara. Horregatik dago halako joera handia ekoizpenaren gorabeheretan eta haren denborazkotasunean arreta jartzeko. Bideoak eta alde bateko lanek, hartara, leku bat hartu ahal izan dute jendaurrean, hirurogeita hamarreko eta laurogeiko hamarkadetan amestu ere ezin zitekeena.

Eta ziur aski artelan baten denborazkotasunaz, haren sorreraz, haren pasaeraz eta haren pasarteez beste ezerk baino gehiago esan dezake Arte Eskola baten tailerretan gertatzen denak. Leku horietan ikasle asko izaten dira, eta ugariak dira halaber sorrera eta igaroaldi horien adibide ageriak. Horri zor zaio esperientzia hori aurre-eratzeari azken urteotan garrantzi estrategiko handia izan duten zenbait arte adierazpenetan. Aurre-eratzeari diot, zeren eta komisarioek hori zer den kontzientzia erabatekoa baitute: arte irakaskuntzaren eszenaratzeari, hori ikusleentzat garrantzitsua izaten ari baita, ez bairik gabe, haiek zoratu egiten baititu pribatu/publiko binomioan inskribatzen den edozerk. Baina eskolentzat ere interesgarria da, beren burua kanpotik ikusteko premia ederra baitzuten.

Irakaskuntzak, ordea, batez ere artearen irakaskuntzak, ez du zerikusirik, ez du koherentzia premia hori, eszenaratzeko premia hori, berreratze eta begirada publiko orori berezko zaiona. Arte ikasleek pasatzen dituzten gorabeherak ez dute ikusgarritasunik, eta askotan ezta irakurketarik ere: hortxe datza irauteko benetako gaitasuna, edozein artelan egiteko behar-beharrezkoa den erresistentzia. Hau ongi ulertua izatea espero dut, eta batez ere inor engainatua ez sentitzea.

2. Arte Eskola batean ikasleei mintegi moldean eskaintzen zaizkien kultur ikasketak mundua bezain zaharrak dira. Bere txispa ere badu, zeren eta Frantzian, 80ko hamarkadaz geroztik, Kultura Orokorreko ikasketak esaten zaie, eta termino hori Kultur Ikasketak bezain beldurgarria da; izan ere, hori Cultural Studies delakoaren hitzez hitzezko itzulpena baino ez baita, Estatu Batuetako unibertsitateek ezagutarazi -eta esportatu- dituztenak. Egia esateko, Cultural Studies horiek britainiarrak izan ziren, iparramerikarrak izan baino lehen; hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, ikasketa haien bidez jakintza batzuk bereganatu nahi ziren, unibertsitateko programetan azaltzen ez zirenak: filologia, hizkuntzalaritza bereziki (semiologia, psikoanalisi), historia berria (Paris inguruko mugimendua), feminismoa eta queer izaera (anglosaxoia, argi eta garbi), etab. Baina horrek ez du inolako garrantzirik.

Garrantzitsua eta jakin beharrekoa da Arte Eskola batean beraren existentziari atxikita dagoen dilema bat dagoela, sarritan galdera honetan adierazten dena: zer gertatzen da lehenago, hausnarketa teoriko bihurtzen den artistaren ekoizpen-esperientzia... edo artelan bat ekoitzi aurretik zegoen pentsamendu teorikoa? Egunero Arte Eskola batean bizi garenean, ikasten dugun azken gauzetako bat izaten da artean eta artistentzat bata eta bestea aldi berekoak direla, beharbada baita gauza bera ere; artista baten jakintzak -pentsamendu psikikoa izan zitekeena, adibidez- ez duela denborazkotasunik, eta horregatik ezin direla erraz txertatu denboran aurrera egiten duten ikasketa razional eta teorikoez osatutako programa batean.

Arte ikasleak eta haien irakasleak, belaunaldi desberdinetako artistak denak, maiz kexatzen dira ikasketa teorikoen astuntasunaz eta faktore desmobilizatzaileaz, eta azkenean desintegratu egiten dituzte ikasketa programa on baten ahalegin guztiak; azkenean tailer-bizitza bihurtzen dute dena, dena praktika hutsera eramanda.

Beraz, errealitatean aurreko galderak beste bat ezkututzen du atzean: zer dator lehenago, irudia edo hitza? Seguru asko erantzuna berbera da: ez dago alderik. Wittgensteinen jarraitzaileak gorabehera, haiek esango bailigukete gauza bat ezin esan daitekeenean irudi bat ateratzen dugula. Eta bai, bidenabar, hori ere egia da, zabor hutsa den arren.

Egia esateko, “Kultur Ikasketak” izena duen mintegi distiratsu bat izugarri eraginkorra da tailer batean eta Arte Eskoletan gai berriak sartzeko. Izan ere, horretarako balio izan dute azken hogeitaz urteotan. Baliagarriak izan dira irakasle artistak zapuztu ez zitezten beren gremioko bera baino gazteagoa den eta arrakasta gehiago duen norbaitek lanpostua ken diezaiokeelakoan.

Gaien (kultur gaien, nonbait) arabeko mintegiak aurreko belaunaldietako ikasle eta irakasleek apurka-apurka ikasgeletatik ateratako auzi teoriko eta historikoak (denboran desordenatuak, baina) sartu ditu. Mintegiek arazoak berriro ditu, gaur egungo interesen arabera berrikusiak, eta horregatik Arte Eskolek goi-mailako ikasketetarako eskolak edo graduatu osteko mintegiak dirudite (nahiz eta leku nahaspilatuagoetan, berdinak ez diren aulkiak eta orbanetz betetako zorua duten geletan). Praktikan, Arte Eskolak pizgarriak izan dira doktoregai belaunaldientzat beste fakultate batzuek (batez ere unibertsitate europarretan) gutxi eskain zezaketen mota guztietako gaien inguruko tesietan (nolabait, eredu anglosaxoiari jarraiki). Egoera horrek nabarmen hobetu du ikasle zein irakasleen ezagupen maila; sarritan ikusten dira artistak eta sortzaileak jakintzaren zirkuluetara erreserbatutako lekuetan, XX. mendeko une erabakigarrietan gertatu zen bezala.

Egoera orokor hori oso baliagarria izan da ikasle-artista-ekoizleen proiektuak aurrera eramateko metodoak berritzeko, eta inspirazio handia hartu dute arkitektoengandik, esaterako, diseinatzaileengandik, soziologoengandik edo filosofoengandik, haiek

berrasmatuz, jakina. Eta esan beharrik ez dago zer ekarri dien zabaltze horrek Arte Eskoletan sartu gabe zeuden jakintzaren beste diziplina batzuei, hala nola musika, antzerkia, literatura eta dantzari, horri esker beren ezagupenak sartu ahal izan baitituzte. Gure buruari galde geniezaioke: zenbat denbora iraungo du kateatze-sortzaile esan geniezaiokeen egoera horrek? Egun bateko lorea ote da? Paseko hegazia? Nik ez dut inongo alderik ikusten tailer baten eta mintegi baten artean, berdin-berdinak dira, eta jakintzaren, ekoizpenaren eta esperientziaren leku horiek seguru asko berrasmatze berriak ezagutuko dituzte etorkizunean.

Guadalupe Echevarria Bordeleko Arte Ederren Eskolako zuzendaria da.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Testuak nahiz itzulpenak kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts ditzakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu. Lizentzia osorik irakurri nahi baduzu:
http://creativecommons.org/license/index_html?lang=eu